



HIZKUNTZA-BALIABIDEAK

Hauek dira edozein lan ekoizteko **ezinbestekoak diren oinarrizko baliabideak**:

1) Zuzentzaile ortografikoa

Ezinbestekoa da lan guztiek zuzentzaile ortografikoa pasatuta edukitzea. Sarean badira bi: [Xuxen](#) eta [Hobelex](#).

Bestalde, bada egiaztatzaile lexiko bat, ordainpekoa: IDITE.

2) Euskaltzaindiaren webgunea

Bertan, [hizkuntza-baliabide](#) ugari aurkituko duzue . Hauek dira EIMAK ikasmaterialak ekoizteko ezinbestekotzat jotzen dituen **guneak**:

- [Euskaltzaindiaren hiztegia](#). Arauzko hiztegia da. Hor jasota daude onartuta dauden hitzak.
 - a) Hitz batzuek marka dute: izan erregistroa, izan euskalkia. Beti hobetsiko da markarik gabea:

gainontzeko

adj. *gip.* eta *naf.* [Gainerakoa](#).

Kasu horretan, *gainerako* erabiliko dugu.

- b) Beste batzuek oharren bat dute, eta kontuan izan behar dira bertan azaltzen direnak:

kotxe

1 iz. [Zalgurdia](#). *Zaldi kotxea*.

2 iz. [Burdinbideetan bidaiariak garraiatzeko ibilgailua, lokomotor batek mugitzen duena](#). Ik. *bagoi*. *Treneko kotxeen atea ireki edo ixteko mekanismoak*.

3 iz. *Heg.* [Haurrak eramateko orga modukoa](#). *Aztertu ditugun jolasgune gehienetan ez da arazorik izan haur-kotxeekin edo gurgil-aulkiekin iristeko*.

4 iz. [Oharra: Euskaltzaindiak, *kotxe* k. euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, hitz hori 'lau gurgileko ibilgailu motordun' adieran ez erabiltzea gomendatzen du; ik. *auto*; *autotxiki*; *berbil*].

- c) Aditzen kasuan, aditzaren partizipioa, aditzoina eta partizipio burutugabea ematen dira hiztegian; adibidez:

ikusi, ikus, ikusten

urrundu, urrun/urrundu, urruntzen

Aditz batzuek aditzoinerako bi forma dituzte onartuta. Halakoetan, EIMAK formarik luzeena erabiltzea eskatzen du, laburrena erabiliz gero esanahia anbigua izan baitaiteke; esate baterako, "urrun", "urrundu" aditzaren aditzoina izateaz gain, aditzondoa ere bada.

- [Arauk](#). Zerrendatuta datoz Euskaltzaindiak orain arte eman dituen 199 arauak.



- [Euskara Batuaren Eskuliburua](#) (EBE). Arauetan eta estilo-liburukietan jasotako sarrera asko jasotzen ditu. Oso tresna erabilgarria da. Ezkerreko bilatzailean zalantza idatzi eta eskuinean zalantza argitzeko EBeko sarrerak azaltzen dira.
- [Euskal Onomastikaren Datutegia](#) (EODA). Deiturak, pertsona-izenak eta lekuak euskaraz nola eman behar diren azaltzen zaigu.
- Bestalde, [Arauen Datutegi Onomastikoak](#) (ADO) jasotzen ditu Euskaltzaindiak araututako izenen zerrendak; bertan bilatuko dugu, adibidez, “Tchaikovsky” nola eman behar den. Eta hau aurkituko dugu:

TCHAIKOVSKY - ARAUAK - ADO

1 emaitza *Tchaikovsky* bilaketarentzat

Piotr Txaikovski (Pertsonaia historikoa [Musikagilea] - Errusia)

Jatorrizkoa: Пётр Чайковский; Piotr Chaikovski (gaztelania); Piotr Tchaikowski (frantsesa); Pyotr Tchaikovsky (ingelese); Pjotr Tschaikowski (alemana); Pëtr Čajkovskij (ISO 9)

Araua: **156. araua**

Urtea: **2009**

EODA: Txaikovski Piotr

- 3) Terminologia kontuak ez ditu arauzko hiztegiak jasotzen. Horretarako, jo [Euskalterm](#)era.
- 4) [Euskal ikasmaterialen Estilo-liburua](#). Liburukietan jasotakoak aintzat hartu behar dira ikasmaterial egokiak idazteko. Liburuki horien arabera egiten du EIMAK hizkuntza-onespenaren azterketa.

BESTELAKO OHARRAK

1. Zaindu lanaren moldea eta maketazioa. Izan koherente.
2. Aintzat hartu koherentzia- eta kohesio-parametroak idaztean.
3. Izan koherente hautatutako solaskidearekin: ez adierazi modu berean irakasleentzako oharrak eta ikasleentzakoak; ikasleek egin beharreko jarduera batean singularreko 2. pertsonan hasiz gero argibideak ematen, eutsi pertsona horri ariketa osoan...
4. Zaindu aurkibidea eta bibliografia.